

1.1.1 GAIAREN LANKETA

> Nor, nolakoa, zer zara zu?



- Nolakoa zara zu?

- Nire laguna honelakoa da: markoa opari

Helburuak

- Ahozotasuna lantzea.
- Talde egitura lantzea.
- Eskulan bat eginez, adjektiboak ikastea eta ondo pasatzea.

Prozedura

- Umeei “markoa opari” banatu.
- Lehenik eta behin, ume bakoitzak “nire lagun baten deskripzioa”n egokitu zaion laguna marraztu A fitxan. Marratik moztu.
- Gero, B fitxako markoa margotu, apaindu eta moztu. Apaintzeko erabili D fitxako irudiak.
- A fitxako lagunaren marrazkia C fitxan itsatsi. C fitxa markatutako marratik moztu eta B fitxaren atzealdean itsatsi. MARKOA EGIN DUTE.
- E fitxan “nire lagun baten deskripzioa”n osatu duten testua kopiatu, moztu eta markoaren atzealdean itsatsi. Lagunari oparia eman.

Oharra

- Kartulinan inprimatzea komeni da.